



SEGURTASUN HIGIENIKO-SANITARIORAKO PROTOKOLOA SASOIKAKO LANGILEAK KONTRATATZEN DITUZTEN NEKAZARITZAKO USTIATEGIETARAKO ETA LANGILE HORIENTZAKO OSTATU LEKUETARAKO

1. HELBURUA

Protokolo honen helburua da sasoikako langileak kontratuko dituzten nekazaritzako ustategien sektoreko enpresetan eta langile horiei emandako ostatu lekuetan inplementatu beharreko jardunbide egokiak ezagutaraztea, langileen artean **SARS-CoV-2a** hedatzea eta infektatzea prebenitzeko.

Protokolo hau nekazaritzako ustategien sektorerako erreferentzia bat moduan eratu da, erraz ulertzen diren segurtasun neurrien laburpen batekin.

Horretarako, kontuan hartu dira Osasun Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak landutako jarraibide eta gomendio guztiak.

2. ERANTZUKIZUNAK

Denon zeregina da pertsonen eta enpresetako kide guztien segurtasuna zaintzea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak berak ezartzen dituen bideak erabiliz eta osasun agintari eskumendunek markatutako neurriei jarraituz.

Bai enplegu emaileek, bai kontratatutako pertsonen katearen zati baten ardura dute, denon artean **lan gune guztietan segurtasun higieniko-sanitarioa bermatzea** lortzeko.

3. BIRUSARI AURRE EGITEKO BABES NEURRI OROKORRAK

Babes neurri nagusi gisa, hauek azpimarratu daitezke:

- Bi metroko tartea uztea pertsonen artean.
- Garbiketak ezarritako prozeduren arabera egitea, neurri kolektibo eta indibidual gisa.
 - Eskuak urez eta xaboiz garbitzea, eta, horrelakorik egon ezean, soluzio hidroalkoholiko batez.



- Aldia-aldian erabilera pertsonaleko objektuak garbitzea eta desinfektatzea, hala nola hauek: betaurrekoak, mugikorrak, etab.
- Gune eta gainazal komunak sarritan garbitzea, eta gune itxiak egoki aireztatzea.

Neurri biak, distantzia eta garbiketa, garraioan eta lan lekuetan hartu behar dira, eta, esku artean dugun kasuan, langileen ostatu lekuetan ere bai.

4. ANTOLAKETA NEURRIAK

Enpresaren betebeharra izango da COVID-19aren arriskuari aurre egiteko langileen artean hartu beharreko prebentzio neurriak ezartzea eta neurri horiek betetzen direla zaintzea, horretarako Prebentzio Zerbitzuaren (PZ) laguntza izanik.

4.1. SEGURTASUN DISTANTZIA

Bermatu beharko da langileen **artean gutxienez bi metroko segurtasun distantzia** gorde daitekeela.

Distantzia hori gordetzea bermatu ezin bada, ziurtatuko da langileek beren arrisku mailarako egokiak diren babes ekipoak badituztela. Arrisku maila hori Prebentzio Zerbitzuak definituko du, arriskuaren ebaluazioa egin ondoren.

Beharrezkoak ez diren kontaktuak saihestea da fenon segurtasuna bermatzeko neurri bat.

Egoera hauetan ere gorde beharko da pertsonen artean segurtasun distantzia:

4.1.1. GARRAIOA

Lurreko garraioan ibilgailuen okupaziorako baldintzei dagokienez, Garraio, mugikortasun eta hiri agendako Ministerioak ezarritako mugikortasun xedapenak bete beharko dira,

- Lanerako joan-etorrietan, gomendatzen da **garraio indibiduala** erabiltzea, Garraio Ministerioak distantziak ziurtatzeko emandako gomendioak beteta.

4.1.2. LAN LEKUAK

Lan guneak banatzean, kontuan hartuko da lan lekuetan eta aldagela, atsedan leku, zerbitzu higieniko, jantoki eta beste toki batzuetan ere 2 metroko segurtasun distantzia mantentzea bermatu beharko dela,

Lantaldeak edo langile taldeak antolatzea. Langile taldeak antolatzean, argi identifikatuko dira talde bakoitzeko langileak. Ahal den neurrian, saihestuko da langile taldeek lanak elkarrekin egitea eta langile taldeen artean langileak trukitzea.



Lantalde edo langile talde bakoitzean arduradun bat izendatuko da, aurreikusitako prebentzio neurriak betetzen direla zaintzeko.

Gomendatzen da langile taldeentzat ondo bereizitako lan guneak prestatzea.

Gomendagarria da, halaber, langile talde bakoitzari komun jakin batzuk esleitzea, eta beti saiatuko da komunak eta komun eramangarriak ondoren adierazten diren prozedurei jarraituta garbitzen eta desinfektatzen.

Horrez gain, saiatuko da egunean zehar joan-etorriak egokitzen eta malgutzen, modu mailakatuan eginez, eta aldageletan, atsedean lekuetan eta jantokietan, esaterako, jendea pilatzea ekiditen.

NEURRI HIGIENIKO-SANITARIOAK

4.2.1 GUNE KOMUNEN GARBIKETA

Garbiketa eta desinfekzioa egoki egitea errazteko, **instalazioak baldintza egokietan** eduki beharko dira, hondatutako guneak konponduz, ordenatuta edukiz, eta behar ez diren materialak eta objektuak kenduz, esaterako.

Kontrolak eta antolaketa neurriak ezarriko dira **instalazioak** (jantokia, garbitasunerako lekuak, aldagelak eta ustiategiaren beste gune komun batzuk), lan ekipamenduak eta langileek ostatu lekuak **garbitzeko eta desinfektatzeko**.

Garbitzaileek norberaren babeserako ekipamendu egokia erabiliko dute (eskularruak, mantalak, etab.), eta ekipamenduak erabili ondoren modu seguruan baztertuko dituzte, eta ondoren eskuak garbituko dituzte. Garbiketa lanetarako, **erabili binilozko/akrilonitrilozko eskularruak**. Latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da azpian kotoizko eskularru bat janztea.

Erabili beharrko produktua:

Ziurtatu desinfektatzaile arruntak erabiltzen direla (lixiba, alkohol edo ur oxigenatuko soluzioak) edo Bioziden Erregistroan jasota dauden detergenteak eta desinfektatzaileak (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf).

Jarraitu erabilerarako zehaztutako teknikoei, intoxikazio posibleak ekiditeko.

Instalazioak, lan ekipamenduak eta ostatu lekuak **sarriago** garbitu eta desinfektatu (sari ukitzen diren gainazalak, ateen heldulekuak, altzariak, zoruak, komunak, etab.)

Beste neurri batzuk:



1. Lan lekuetan **erabilera** komuneko **gailuak kendu edo itxi**, hala nola ahoa txorrotera hurbiltzea eskatzen duten iturriak.
2. **Langile bakoitzari** bere erremintak, saskiak, makina eramangarriak eta ekipoak **esleitu**, eta ziurtatu horiek beti langile berak erabiliko dituela, eta lanaldia hasi aurretik eta bukatu eta gero garbitu eta desinfektatuko dituela, batzuk besteekin nahastea ekidinda. Ahal den neurrian, saihestuko da erremintak eta lan ekipamenduak partekatzea, eta, hori posible ez balitz, garrantzitsua da aurretik garbiketa eta desinfekzio neurriak areagotzea.
3. Makinak higienizatu. Txandaka erabili daitezkeen eta, beraz, beste pertsona batzuek erabiliko dituzten makinak edo ekipamenduak (landatzeko makina, traktoreak, uzta biltzeko makinak, etab) erabiltzen diren bakoitzean, beharrezkoa da eskuekin ukitzen diren gunek eta bestako gainazalak garbitzea eta produktu desinfektatzaileak aplikatzea.
4. Aurreikusiko da lursailaren hainbat tokitan edateko ur kloratuko bidoiak, xaboia eta paperezko zapiak jartzeko aukera.
Hidrogel edo xaboi likidoaren banagailuak eta behin erabiltzeko toallak eskura jarri beharko dira lursailaren edo lan lekuaren hainbat tokitan, hala nola biltegietan, makinaren garajeetan, berotegietan, etab.
5. **Tapa eta pedala dituzten paperontziak edo hondakinak botatzeko edukiontzi tapadunak** jarriko dira instalazioaren gune komunetan, zapiak eta botatzeko den beste edozein material uzteko, sarri garbitu beharko dira eta.
6. Gomendatzen da **objektuak ez partekatzea**. Objektuak trukatzeko ekidin ezin bada, objektuak trukatu ondoren eskuak desinfektatuko dira.
7. **Arropa**. Gomendatzen da **laneko arropa** egunero garbitzea eta aldatzea.
Laneko arropa garbitzeko, ahalik eta gutxien manipulatu da eta ez da astinduko. Bildu egingo da, suabe, eta zuzenean garbigailura eramango da edo poltsa batean sartuko, garbituko den lekura eramateko.
8. **Aldagelan**, lanaldiaren hasieran, langileek arropa eta oinetakoak aldatzen dituztenean, eskuak garbitu beharko dituzte. Lanpostuetan gela edo soluzio alkoholikoak erabili daitezke, higiene egokia edukitzeko.
9. Ezin dira katiluak, edalontziak, mahai tresnak eta jateko erabiltzen diren beste tresna batzuk partekatu, eta gomendagarriak horiek denak behin erabiltzekoak izatea, erabili ondoren plastikozko poltsa bat eta tapa duten edukiontzietara botatzeko.

4.2.2. HIGIENE PERTSONALA


Langileak kutsatzea ekiditeko, gomendatzen da besarkadarik eta musurik ez ematea edo beste batzuei eskua ez ematea.

4.2.2.1. **ESKUEN HIGIENEA** da infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri nagusia (OME-Osasunaren Munduko Erakundearen gomendioa). Gutxienez 40 segundoan garbitzea, marrazkian azaltzen den moduan.



Azazkalak motzak eta zainduta eduki, eta saiatu **eraztunik**, **eskumuturrekorik**, **eskumuturreko erlojurik** edo eskua ondo garbitzea zaildu dezakeen bestelako **apaingarririk** ez erabiltzen.

Eskularruak kentzeko, ondoko irudian agertzen den moduan egin:



y no olvide **LAVAR SUS MANOS** con agua y jabón tras la retirada de los guantes.

4.2.2.2. ARNASKETAKO ETIKETA:



1. Eztul eta doministiku egitean, estali sudurra eta ahoa **paperezko mukizapiekin** eta bota mukizapiak tapa eta pedala dituen zakarrontzi batera.
2. Paperezko mukizapirik ez baduzu, **alkandoraren mahukaren gainean** egin eztul eta doministiku, eskuak ez kutsatzeko.
3. **Saihestu begiak, sudurra edo ahoa ukitzea**, ez eskuekin, ez eskularruekin, horrek birusa transmititzea errazten baitu.
4. Arnasbideen higienarako ohitura onak eduki. **Ez bota txistua**, erabili behin erabiltzeko mukizapiak.

5. PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA

Langileen informazioak eta prestakuntzak **Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak** ezartzen duena bete behar dute.

Informazioa eta prestakuntza funtsezkoak dira oraingoa bezain berezia den egoera batean langileen artean antolaketa neurriak eta neurri higieniko eta teknikoak ezarri ahal izateko. Bermatu behar da **langile guztiek** ezartzen diren neurri berezien gaineko informazio eta prestakuntza berezia eta eguneratua dutela.

Egiaztatu behar da pertsonak eman zaien informazioa **ulertu dutela**, izan ere, batzuetan berea ez den hizkuntza batean ematen zaie informazioa eta zailtasunak izan ditzateke hizkuntza hori ulertzeko edo irakurtzeko.



Prestakuntzarako eta informaziorako programa espezifiko bat eduki behar da, elementu hauekin:

- Prestakuntzaz arduratuko den pertsona bat definituko da, prestakuntza langile guztiei helarazteko eta prestakuntza ulertzen dutela bermatzeko (hainbat hizkuntzatan).
- Instalazioetan, lan lekuetan, komunitan, atsedan guneetan eta beste hainbat tokitan bete beharreko urruntze neurriak eta garbitaketa eta babes kolektibo eta banakoari buruzkoak jakinarazteko informazio kartelak –beharrezkoa balitz hainbat hizkuntzatan–
- Jarraibide argiak, esanez COVID-19arekin lotura eduki dezakeen edozein sintoma edukiz gero (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.) **EZIN** dela lanpostura joan, eta **ezarri zaion famili medikuarekin edo Lehen Arretako Osasun Zentroarekin harremanetan jartzeko** modua adierazi, baldin eta ohiko bizilekuaren herritik kanpo badago, **ondoren enpresari jakinarazi beharra** egongo dela adierazita.

Garrantzitsua da azpimarratzea informazioa eta prestakuntza egokituz joan behar direla, agintaritza eskumendunek neurriak eguneratu ahala, eta horretarako neurrien jarraipena egin behar da etengabe.

- Prebentziorako babes neurriak

Segurtasun distantzia gordetzen ahalegindu behar da beti. 3 jarduera maila daude, eta hurrenkera honetan bete behar dira: Antolaketa neurriak (espazioen banaketa eta antolaketa, pertsonen joan-etorrien banaketa...), babes kolektiboko neurriak eta banakako babes neurriak.

Banakako babes neurriak Prebentzio Zerbitzuak adieraziko ditu, lanpostuak ebaluatu eta gero, eta ondoren babes neurri horien gaineko prestakuntza berezia ezarriko da.

2 metroko distantzia gordetzea bermatu ezin bada, ziurtatuko da langileek beren arrisku mailarako egokiak diren babes ekipoak badituztela. Arrisku maila hori Prebentzio Zerbitzuak definituko du, arriskuaren ebaluazioa egin ondoren.



6. ENPRESEN KOORDINAZIOA

Prebentzioko neurri horien gaineko informazioa emateko kanal bat ezarriko da espazio horietan batera egon daitezkeen enpresekin komunizazioan egoteko.

7. GAIXO DAUDEN LANGILEEN, KONTAKTU ESTUEN ETA ZAURGARRI DIREN PERTSONEN KUDEAKETA

Covid-19a prebenitzeko, birus horri buruz kontuan hartu beharreko oinarritzko ezagutzak:

- Eztula, sukarra (37º baino gehiago) eta arnasa hartzeko zailtasuna dira Covid-19aren sintoma nagusiak, eta, kasu batzuetan, muskuluetako mina eta buruko mina ere badira beste sintoma batzuk.
- Kasuen %80k sintoma arinak ditu, eta inkubazio aldia 2-14 egun artekoa da. Kasuen %50k kutsatu eta 5 egunera edukitzen hasten da sintomak

Talde zaurgarriak:

Prebentzio Zerbitzuko osasun arloak Osasun Ministerioaren prozeduran definitutako talde zaurgarrietako batekoak diren langileak banan-banan aztertuko ditu.

Gaixotasuna eta Kontaktu estuak:

Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada, autonomia erkidegoak horretarako jarri duen telefono zenbakira deituko da berehala, edo kasuan kasuko osasun zentrori, eta, hala badagokio, lan arriskuen prebentzio zerbitzuekin jarriko da harremanetan. Langileak lanpostua utzik beharko du, osasun alorreko profesional batek bere egoera medikoa baloratu arte.

Langileak ostatu lekua ustiatzean baldin badu, osasun agintaritzek urruntzeari buruz emandako jarraibideak bete beharko ditu.

Prebentzio Zerbitzuak identifikatutako kontaktu estuak ez dira lanera joango. Prebentzio Zerbitzuko medikuak txosten bat egingo du, lehen arretako medikuari emateko. Txosten horrekin, langileak bere ohiko osasun zentrori deituko du, aldi baterako ezintasun agiria egin diezaion.

Kontaktua etxean izan bada (ez lanean), lehen arretako medikuak egin beharko ditu kasuari dagozkion tramiteak.

8 ZUZENDARITZAREN/GERENTZIAREN ANTOLAKETA NEURRIAK



8.1 LAN LEKUAK ANTOLATZEKO NEURRIAK

Zuzendaritzari edota gerentziari dagokio lanean hasi aurretik COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia plan bat egitea, Prebentzio Zerbitzuak aholkatuta, eta nekazaritzako ustategiaren instalazioetan gaixotasun kasuren bat agertzen bada kasua gestionatzea.

Aurreko puntuetan garatutakoez gain, gai hauek ere hartu beharko ditu kontuan:

Baliabideen eskuragarritasuna: osasun alorreko agintaritzek gomendatutako segurtasun neurri guztiak garatzeko behar besteko bitarteko ekonomikoak eta estrategikoak eduki behar dira.

Garbiketarako produktuen, eskuetako gel edo soluzio desinfektatzailearen, behin erabiltzeko zapien, mantalen eta zabor poltsen stocka hobetu, une oro eskuragarri egongo direla ziurtatzeko. Stocka egunero berrikusi.

Hidrogel edo xaboi likidoaren banagailuak eta behin erabiltzeko toallak eskura egon beharko dira lursailaren edo lan lekuaren hainbat tokitan.

Lanagatik **mugitu beharra** daukala **egiaztatzen duen agiri** bat emango zaio langile bakoitzari, alarma egoera indarrean dagoen bitartean.

Prebentzio Zerbitzuarekin batera talde zaurgarrietako langileen baloraziorako tramiteak kudeatuko dira, bai eta gaixotasun kasu bat agertzen denean egin beharreko tramiteak ere.

8.2. LANGILEAREN OSTATU LEKUEN ANTOLAKETA

- Gomendatzen da familia nukleoak edo langile taldeak etxebizitza edo ostatu leku desberdinetan bereizte, haien artean egon daitekeen erlazioa ahalik eta gehien ekiditeko. Banaketa horrek jarraitu beharko du lana egiten den bitartean, familia nukleo edo langile talde desberdinen arteko kontaktua ekidinda.

- Langileen ostatu lekuak baldintza higieniko egokiak eduki behar ditu, eta atsedenerako lekuak, jantokia, logelak egoki banatuta eduki behar ditu, pertsonen arteko 2 metroko distantzia fisiko gorde ahal izateko. Saijestu jendea pilatzea.

- Ostatu lekua okupatu aurretik, jabea ostatu lekua garbitu eta desinfektatuko du. Eskuatarako xaboia, behin erabiltzeko zapiak, arroparako eta tresnetarako detergentea, eta garbiketarako eta desinfekziorako produktuak egotea ere bermatuko du.

- Egunero aireberritu beharko da, gutxienez 10 minutuan, aire korronteak ahalik eta gehien ekidinda.

– Ostatu lekuan egongo direnei hau jakinaraziko zaie berariaz:

- Higiene neurriak eta etxea aireberritzeko neurriak.



- Elikagaien manipulazioa eta sukaldearen eremuaren higiena, eskuekin, tresnekin eta manipulaziorako gainazalekin eta gaizki higienizatutako baxerarekin birusa hedatzea ekiditeko, ahal bada.
 - Sukaldea eta jakiak prestatzeko eta kontsumitzeko erabiliko diren gainazalak garbi eta desinfektatuta eduki behar dira.
 - Baxera eta sukaldeko tresnak ur beroarekin garbituko dira (+60º C) edo soluzio desinfektatzaile batekin edo lixiba soluzio batekin (nahastu 20 ml lixiba litro 1 uretan)
 - Edariak edo jakiak kontsumitzen badira, ez partekatu ez botilarik, ez mahai tresnarik, ez ontzirik ere, eta garbitu eskuak kontsumitu aurretik.
- Hondakinak sarriago kendu, hondakinak eskuekin ukitzea ekidinda. Zaborrontziak, ahal bada, pedalarekin zabalduko dira, eta tapa izango dute.
- Lanaren ondoren ostatu lekura bueltatzen den pertsona batentzat gomendatzen diren higiene pertsonaleko ohiturei eta prebentzio neurriei buruzko informazioa emango da:
 - Eskuak garbitu ezer ukitu baino lehen (giltzak garbitzeko ere aprobetxatu daiteke).
 - Gorputz osoko duxa
 - Garbitu telefono mugikorra, betaurrekoak, etab, urez eta xaboiz edo alkoholez.
- Higiene neurriak eta prebentzio neurriak bultzatzen dituzten **kartelak eta seinaleak** langileek ulertu ditzaketen hizkuntzetan egotea bultzatuko da.



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS